

Ikasturte berria badator Kontxiri agur esan eta gero



Azken 27 urteetan (eskola berriz zabalduz geroztik) Zeraingo herri eskolako irakasle izan den Kontxi Errastik erretiroa hartu du. Hori dela-eta, uztailaren 23an, ostirala, herriak esker onezko agur festa egin zion. Festa iluntzean hasi zen. Kontxiren ikasle izan diren zenbait haur eta gaztetxok hainbat dantza eginda, agurra eskainita eta bertso batzuek kantatuta omendu zuten euren *andereñoa*. Jarraian lore sorta bat eta azken 27 ikasturteetako argazkiz osatutako koadro bat oparitu zizkionten. Umeen ondoren, herriko Uharka abesbatzaren txanda izan zen. Hainbat euskal kanta abestu ondoren, *Agur Jaunak* solemnearekin agurtu zuten Kontxi eta herria. Jarraian, artepean, plazan elkarretaratutako herri guztiak argazkia atera genuen. Azkenik, mahaiaren bueltako ter-

tuliarekin amaitu zen agur-festa. Kontxi *andereñoak* ez zuen gutxiago merezi!

Ikasturte berria nobedadeekin

2010-2011 ikasturte berria gain-gaiean da, eta Kontxik alde egin arren, Zeraingo eskolak eta haurreskolak martxan jarraituko dute. Eskola irailaren 8an hasiko da hamar umerekin, eta aurtengo nobedadea Guraso Elkarteak antolatutako haurzaintza zerbitzua izango da. Herriko gurasoen lana eta familia uztartzeko ahaleginetan, eskola hasi aurretik eta ondoren, haurrak zaintzeko zerbitzua jarriko da martxan: goizez 7:30-9:00 bitartean eta arratsaldez 16:30-18:00 bitartean. Norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero, Basarte guraso elkartera jo dezake.

XVI. azoka ekologikoa irailaren 19an

Konturazterako Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren azokak XVI. edizioa izango du aurten. Urtez urte, inoiz hutsik egin gabe, zeraindarron auzolanari esker azoka bikaina izaten dugu udazkenaren atarian.

Aurtengo irailaren 19an, igandean, izango da. Goizeko 9etatik eguerdia bitartean produktu ekologikoen salmenta-postuak, tailerrak, erakusketak, artisauak, etab. izango ditugu. Urtero bezala, toleara, lixiba eta ogi-tailerra izango ditugu. Horrez gain, garaian garaiko produktuak kontsumitzearen onurei buruzko tailer didaktiko berezi bat ere izango da. Beste elementu erakargarri bat txondorra izango da. Azken urteetan egin ez den arren, txondorraren erakusketak jada tradizio handia du herrian. Aurten azoka egunean txondorra muntatzen amaituko da eta ondoren-



go astean piztuko da. Azken berrikuntza *Goierriko Baratzarekin* egingo den elkarlana izango da. Azoka berean ez-ezik, udazkenean zehar hitzaldi eta erakusketa zikloa antolatuko da haiekin elkarlanean.

Feria prestatzeko bilera

Azoka egunean lan egiteko prest dauden herritarrak elkartu eta lanbanaketa egiteko bilera egingo da irailaren 14an, asteartea, iluntzeko 7etan kultur etxean.

Peregrinazioa irailaren 4an



Arantzazuko peregrinazioa irailaren 4an, izango da aurten. Irteera goizeko 8etan egingo da Zeraingo plazatik. Bi aukera egongo dira: Batetik, hala nahi dutenek Zeraindik bertatik Urbiara joateko aukera izango dute. Bestetik, autobus txiki bat egongo da Aldaolaraino joateko eta gero handik Urbiarako bidea hartzeko. Eguerdiko 13:30etan Urbiko Fondan izango da bazkaria. Arratsaldeko 4etan, Mutiloko eta Segurako erromesekin

batara Arantzazurako jaitsiera hasiko da. 6ak aldera, harrera-elizkizun laburra egingo dute Arantzazuko fraileek. Ondoren, autobusa egongo da herrira itzultzeko.

Peregrinazioan joateko asmoa dutenek irailaren 1a baino lehen izena eman behar diote Larraondoko Xanti Muñoiari. Bestalde, irailaren 5ean, igandea, autobusez Arantzazuko mezetara joan nahi dutenek Segurako Germanenen hartu behar dituzte txartelak.

Giro bikainean ospatu ditugu Andramari festak

Iritsi bezala, ziztu bizian, joan zaizkigu aurtengo herriko festak ere. Giro bikainean eta ekintza guztietan parte hartze handiarekin pasa dira aurtengo Andramariak. Eguraldia freskoa izan dugu, baina festa giroa aparta, nahiz eta beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili den gauez. Aztertzea izango da hori zergatik gertatu den.

Balorazio-bilera

Orain balantzea egiteko ordua da. Horretarako, abuztuaren 27an, ostirala, bilera irekia antolatu du Kultur Elkarteak iluntzeko 7etarako. Herritar guztiak gonbidatuta daude bilera horretan parte hartzera eta euren iritzia ematera.

Bestalde, ale honekin batera, festetako une ezberdinak argazkietan jasotzen dituen XAGUARTEA berezia kaleratu dugu.

Espintxe, espintxero

Sagastibilgo Txominek emandako hitza da gaurkoa. Elenak berak inoiz entzun gabea zuen. Ez zuen, behintzat, gogoan. Txominek esanik galdezka hasi da adin batetik gorako zeraindaren artean eta, zorionez, hainbat zehaztasun eskuratu ahal izan du hitz horietaz. Hantxan jasotako informazio horretatik, honako definizio modu honetara iritsi da: "auzolanean, lanaldi bat egiterakoan, han bertan egindako mokadutxoa izan ohi zen *espintxea*. Normalean ogia, gazta eta ardoa". Horrela jaso du hitzaren oinarritzko definizioa. Gehiago ere badu jasorik, adin batetik gorako zeraindarrei galdezka ibili ondoan. Barrio Sagradu aldetik atera du gaurkoan argibide ugariena. Jose Tellerikoak, esate baterako, zehaztasun hau eskaini dio Elenari aurreko batean: "batzuetan, *espintxe* hori Ostatutik eraman eta udalak ordaintzen zuen". Iñaki Korosmendik ere, Joxe baino ondotoz gazteago izan arren, maiz entzuna omen du hitza. Auzoko hainbat lanetan *espintxe* gora eta *espintxe* bera jarduten omen zen bere haurtzaroan; baita geroxeago ere. Badu hitzaz akordatzeko motiborik. Mutikotan bera bidaltzen omen zuten *espintxero*. Ostatura bera joaten omen zen ogi, gazta eta ardo bila. Halakoetan ez omen zuen, ordea, udalak ordaintzen.

Hitz baten ordeaz bi jaso ditugu gaurkoan: *espintxe* eta *espintxero*. Estu-estu lotuak daude biak, jakina. *Espintxe*aren bila joaten zenari esaten zitzaion *espintxero*. Bila joaten zenari bai, baina hari bakarrik ez. Baita beste zenbaiti ere. Esate baterako, tabernan mahaira ardoa eraman eta bertakoan artean banatzen zuenari. Horrela esaten omen zuten zeraindarrek tabernan, jokoan ari zirelarik: "hi, libre hago eta egizak *espintxero*".

Hitza gainbehera dator. Proba egin du Elenak, eta ez dago dudarik. 50 edo 55 urtetik gorako zeraindarrek (ez guztiek, baina bai hainbatek) badute hitz horren berri. Jakin badakite zer den, nahiz eta askotan ez



90eko hamarraldian kaltzada garbitzen auzolanean aritu ziren herriko gazteek ere izaten zuten *espintxea*.

duten erabiltzen. Telleriko Joxeren, Juanen eta horien adinekoren garaiko hitzak dira *espintxe* eta *espintxero*. Hots, 85 urte ingurukoena. Horiak badakite hitz horiek zer diren, eta erabiltzen ere badakite ondo asko. Gazteagoek, aldiz, jakin bai baina erabili ez. Eta 50 urtetik beherakoek, azkenik, *espintxea* edo *espintxeroa* zer den ere ez dakite. Herrian aspaldiko urteotan erabiltzen ez den seinale.

Ez erabiltzearen motiboa, berriz, badakizue zein den: betikoa. Gizartea txistu bizian aldatuz joan da azken gizaldian. Azken 30 urteotan, bereziki, abaila bizian aldatu dira tresnak, kontzeptuak, ohiturak eta lanbideak. Gizarte-aldakuntza horrek ez du aurrerapen teknologikoen eta kultura material gehienaren berrikuntza bakarrik ekarri. Hori baino gehiago aldatu da gure artean. Tartean, etxeko eta auzoko bizimodu arrunta, egunik eguneko jardun xumean gizakion ibilera nagusia taxutzen eta hezurramitzen duena. Auzolanak aparteko esangura zuen orain arteko gizarte moduan: bai beharizanak banatzera koan eta bai, nola ez, bere ahalegina eskaintzen zuenari oinarri-oinarritzko eskerrona erakusterakoan. Gizalegezko jokabidea zen, orain gutxira arteko bizimoduaren baitan, auzolanean saiatsen zenari ordainean ogia, gazta eta ardoa eskaintzea. Ordain-erakuste hori zen *espintxea*. Eginkizun xume hartaz arduratzen zen gaztea (gehienetan mutikoa) *espintxeroa* genuen.

Begira hasi gara hiztegieta, hitz pare horretaz zer ote datorren jakin nahirik. *Orotariko Euskal Hiztegia* ez dugu ezer topatu. Ez halakorik eta ez, saiatu garen neurrian, antzekorik. Erdal jatorritzko itxura izanik, Corominas txikia eta Maria Moliner kontsultatu ditu. Alferrik ordea: haietan ere ez da halako hitzik ageri. Antzekoenak, gaztelaniazko *pinche* eta *compinche* izango genituzke. Horietatik ote dator gure *espintxe*? Corominas-en hitzetan, "aprendiz de cocinero" da *pinche* eta, gure kasuan, adieraz ez dabil hain-hain urruti. Duda egiten dut, ordea, iturri horretatik jasotakoa dugunik. Bi motibo ditut duda egiteko. Batetik, adiera hori osatzeko ez zegoen *espintxero* sortu beharrik: aski zen *espintxe* hitzarekin. Bestetik, Gipuzkoan barrena (bai det-esparruan eta bai dot-eremuan) *pinche* hitza bere horretan erabili izan da, aurreko *es-* hori gabe. *Baso-mutillak* liburuan, esate baterako, honako esaldi hau irakur liteke: "guk *pinche*arekin ez genduan inork deskontenturik izan; mutil pizkorra, saiatua eta ona zan". Nondik etorri da, beraz, zeraindaren *espintxe* (eta, horren garapenez, *espintxero*) hori? Ez dakit. Inork baleki, edo nolabaiteko hipotesirik balu, gustura jasoko genuke. Ea bada: *espintxero*-lanean saiatu nahi duenak hor du aukera.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

UZTAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 14,5L			0,25	1,5	1,5	0,5
C° altuena	ALTUENA: 37°			37	34	25	22
C° baxuena	BAXUENA: 10°			15	20	17,5	18
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	0	1	0	0	1	0	0
C° altuena	24	24	30	36	25	30	26
C° baxuena	15,5	15	14	20	20	18	19
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0	0,25	1	0	0,75	0	0
C° altuena	27	34	31	31	29	30	31
C° baxuena	19	18	19	16	15	15	12
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	0	0,25	2	3	0	0	0
C° altuena	34	31	18	20	25	27	21
C° baxuena	15	13	14	15	10	10	10
	26	27	28	29	30	31	
Euria (l/m)	0	0	0	1,5	0	0	
C° altuena	28	32	33	24	29	33	
C° baxuena	14	13	15	16	14	12	

Uztaila lehorretik

Uztaila ere lehorra joan zaigu. Azken urteekin konparatuz, 2005koa izan zen lehorragoa, orduan 9 litro bota zituen; eta aurtengoa, hamahiru egunetan 14,5. Eta gainera, litro horiek denak lanbrotan egin ditu. Temperaturak egunez beroak izan ditugu (beroena hilaren 1a, 37 gradu-ekin), gauak aldiz freskoak, ipar haizea nagusi izan baita. Belarrak igartzeko eguraldi onak, dudarik gabe!



Urtekaria eskuragai



23. urtez jarraian, Oa kultur elkarteak egindako Zeraingo urtekaria kalean da. Mandio dendan eskura daiteke.

KZgunean dinamizatzaile berria irailetik aurrera

Irailetik aurrera Izaro izeneko dinamizatzaile berria izango dugu herriko KZgunean. Iraileko egunak eta ordutegia honakoak izango dira: hilaren 2an, 16an eta 30ean, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Inazio Zabalo omenduko dute Artzain Egunean

Irailaren 5ean Legazpin ospatuko den Gipuzkoako Artzain Egunean, Inazio Zabalo (*Rubio*) herriko artzain erretiratura omenduko dute beste batzuen artean, artzaintzan egindako lanagatik. Zorionak Inazio, Hilari eta familia guztiari!

Herri-bilera irailaren 21ean

Azken herri-bileran erabaki bezala, datorren hilaren 21ean udal-hauteskunderi buruzko herri-bilera egingo da iluntzeko 7etan udaletxean. Herriar denentzat irekia izango da.